

Paula Kasares

IRAKASLEA

Izpiritu olinpikoa vs. David gnomoa



linpiaden bestondoa pasatu da. *Citius, Altius, Fortius* lelopean antolatzen den gertaera mediatikoa —edo orain erraten den bezala, merkatuteknikoa— akituzen eta harekin batera apaldu ziren, pixka bat bederen, banderen itzalpean baino ez egiten diren norgehiagoka eta lehien asaldura nazionalak. Gaurgero estatuek euren lepoetatik zintzilikaturik dituzte dominak, euren handitasun eta boterearen bitxiak bailiran. Handiago, garaiago, azkarrago nahi izan horretan ohitu gara, atletismo pistetatik at ere. Bizitza eta lehia berdintzen duen ikusmoldeari men eginda gaude, antza.

Olinpiaden prestaketaren algaran bete-betean, intelektual espainiar batzuek (Jose Antonio Marinak, Aurelio Artetak, Felix de Azuak, Albert Boadellak, Arcadi Espadak, Carlos Martinez Gorriaranek, Alvaro Pombok eta Fernando Savaterrek, bertzeak bertze) *Manifiesto por una lengua común* bota zuten iritzi publikoaren joko zelaira estatuko hizkuntza politika publikoan eragiteko asmo garbiaz. Handiago, garaiago, azkarrago izateagatik edo, preseski, hala nahi dutelako gaztelania lehenetsi eta bertzei nagusitzea aldarrikatzen dute.

Garai horretan ere, handiago, garaiago, azkarrago nahi izate horren ideologia linguis-



MIKEL SAIZ

tikoa biluztu du Juan Carlos Moreno Cabrerak hizkuntzalariak. Morenok —Madrilgo Unibertsitate Autonomoko hizkuntzalaritza katedraduna izateak ematen dion susmogabetasun osoz— hizkuntza nazionalismo espainiarraren ideologia aztertu eta ideologia horrek gaztelaniaren nagusitasunaren alde egiten duen defentsa ideologizatua utzi du agerian. Diskurtso zientifikoaren azal jantziak, hizkuntza nazionalismo espainiarraren ideologiak kontzeptu linguistiko eta soziolinguistikoak manipulatu, hizkuntzen arteko desoreka prozesu natural baten ondorio gisa agertzen du. Hau da, gaztelania handiago, garaiago eta azkarrago balizko izate hori naturalizat eta nahigarritzat jotzen du.

Horren guztiaren ondotik, uda, olinpiadak, hizkuntza amankomunaren manifestua eta nazionalismo linguistiko espainiarraren ajeak pasatuta, segitzen dut pentsatzen bertzelako mundua genukeela bizitza omen den lehia honetan beti nagusi izatea erdietsi nahi duen etika beharrean, adintsua bezain zaharrazen filosofo basoko txikitxoak utzi zigun irakaspenera nagusituko balitzagu: David gnomoak erraten zuen bezala: “Inor ez da hobe handiagoa, garaia edo azkarragoa izateagatik”. Hala biz. ■

« Gaztelania handiago, garaiago

eta azkarrago balizko izate

hori naturalizat eta

nahigarritzat jotzen du

nazionalismo espainiarrak »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Lotuta, bahituta edo giltzaperatuta dagoena soilik aska daiteke.

Beraz, euskara askatasunean nahi duela aldarrikatzen duenak euskara orain arte preso egon dela uste du.

Kartzelara behartuta joaten da jendea, ez borondatez.

Beraz, euskara ere norbaitek hartuko zuen preso.

Nork, ordea? Euskararen munduan aritu direnek, noski: euskalgintzakoek eta erakundeetakoek. Hitz batean, euskaltzaleek.

Euskaltzale izateko ez dago, berez, ez nazionalista ez abertzale zertan izanik.

Orain arte, ordea, nazionalista edo abertzale izan dira

Euskara askatu!?!

euskaltzale gehienak, nahiz orain euskararentzat askatasuna aldarrikatzen dutenen artean baka-

rren bat badagoen, nazionalista eta abertzale gehienek baino lan gehiago egindakorik euskararen alde.

Nazionalismoarekin eta abertzaletasunarekin lotuegia ikusten omen dute aldarrigileek euskara.

Egoera oso bestelakoa litzateke, ordea, euskara “askatzen” orain ez, baizik 25, 30 edo 40 urte lehenago hasi izan balira.

Euskaraz eta askatasunez bizitzen aspaldi tematu ginenok biziki eskertuko genien hori. Euskarak berak ere bai.

Ongi etorri, hala ere, euskararekin lotzea baita euskara askatzeko modu bakarra. ■